

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VILLALUENGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzeko eta saneamenduko tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda jendaurrean jartzea, eta 2020ko bigarren seiheleko ordainagiriak borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2020ko bigarren seihelekoaren kontribuzio errolda osaturik eta 2021eko otsailaren 14an onetsirik, errolda jendaurrean jarrita egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek aztertu ahal izan dezaten eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu.

Interesa dutenek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikulua 3. apartatua xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko errejidore-lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazitako epean barruan.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea 2021eko martxoaren 15ean hasi eta maiatzaren 15ean bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Internet bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikulua xedatutakoaren arabera.

Villaluenga, 2021eko otsailaren 15a

Lehendakaria

JUAN SALVADOR DOMÍNGUEZ LUIS